



Aldez aurreko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena behar dituzten obrak arautzen dituen udal ordenantza

Zioen adierazpena

Kanpezuko Udalak bere administrazioa geroago eta azkarragoa eta eraginkorragoa izatea nahi du; ildo beretik, herritarrengandik gertuago jardun nahi du. Horrela, oinarritzat heretura, eraginkortasuna, azkartasuna, gardentasuna, kalitatea eta segurtasun juridikoa hartuta, Udalak aurrera egin behar du, ezinbestean, bere administrazioko prozedurak normalizatzen, eta horretarako izapideak erraztu behar ditu, behar ez diren izapideak ezabatu eta ebazpenak ahalik azkarren eman.

Horrenbestez, Administrazioa eraldatzeko eta herritarrei ematen dizkien zerbitzuak hobetzeko, eta zerbitzu gehiago emateko, egokitzat jotzen da garrantzi gutxiako obra txikiak izapidetzeko eta kontrolatzeko prozedurak erraztea.

Kanpezuko Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerritan arlo hau arautzen duten ordenantzak hartu ditu eredutzat.

I. titulua

I. kapitulua

Xedea. Aplikazio eremua

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Ordenantza honen xedea aldez aurreko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena behar duten obrak izapidetzeko eta kontrolatzeko prozedurak modu xehatuan arautzea da.

Kanpezuko Udalak uste du egokia dela obra txikiak egiteko lizentzien eskaerak, izapideak eta kontrola arautzea. Munta txikiko obrak obra txikitzat hartuko dira. Beraz, esku hartzeko beste elementu bat ezartzen da, hirigintza antolamenduan duten eragin txikiagatik udalari "aldez aurretik" jakinaraztea edo "erantzukizunpeko adierazpena" ematea baino behar ez duten obretarako.

II. kapitulua

Aldez aurreko komunikazioa eta erantzukizunpeko adierazpena

Lehenengo sekzioa

Xedapen orokorrak

2. artikulua. Definizioak

a) Lizentzia: administrazio egintza arautua: egintza horren bidez udalak prebentzioko kontrola ezartzen die herritarren jarduerari, aurretik dagoen eskubide bat baliatzeko baimena emanez, erabilera horrek lege eta arauzko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ondoren.

b) Aldez aurreko komunikazioa: eskubide bat erabili edo obra bati ekin nahi dionak bere identifikazio datuak emateko eta ezarritako betekizunak betetzen dituela adierazteko aurkeztu behar duen agiria, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta



Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 30eko 30/1992 Legeak 70.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

c) Erantzukizunpeko adierazpena: eskubide bat erabili edo obra bati ekin nahi dionak indarreko araudian ezarritako betekizunak betetzen dituela, hori frogatzen duten agiriak badauzkala eta betekizunak eskubidea erabiltzen duen artean edo obra amaitu bitartean beteko dituela adierazteko sinatzen duen agiria, erantzukizuna dakarrena. Betekizunak berariaz eta modu argian agertu behar dira erantzukizunpeko adierazpenean.

d) Titularra/emailea: udalak esku hartuko duen jarduera egiten edo egingo den edo obra gauzatuko den ondasun higiezinaren jabea den pertsona fisikoa edo juridikoa, publikoa zein pribatua. Jabetzaren titulua Zuzenbidean onartutakoa izan behar da.

e) Sustatzailea: pertsona fisikoa edo juridikoa, publikoa zein pribatua, bakarka edo taldeka eraikuntza obra bat egitea erabaki eta bere baliabideekin edo beste batzuenekin bultzatu, programatu eta finantzatzen duena, beretzat edo ondoren edozein tituluren bidez hirugarrenei besterentzeko, emateko edo lagatzeko.

f) Eraikitzailea: kontratu baten bidez sustatzailearen aurrean, proiektuari edo dokumentazio teknikoari lotuta, bere giza baliabide eta baliabide materialekin edo beste batzuenekin, obra edo haren zati bat gauzatzeko konpromisoa hartzen duen agentea.

g) Oin berriko obra: oin berriko obra da obra eta eraikin berriak egitea, aurrerengatik edo eraisketa baten ondorioz eraikin bat osorik edo zati bat berreraikitzea; dagoen eraikin bateko azalera edo bolumena handitzea.

h) Egiturazko elementua: in situ egindako edo aurrefabrikatutako eraikuntza osagai oro zein, eraikitako multzoan jarrita, bakarka edo taldean, hari eusten laguntzen duen, grabitatearen ekintzen, kanpoko edozein ekintza mekanikoren -hala nola haizea, besteak beste-, eta karga eta gainkarga aktibo eta pasiboko egoeren aurrean.

i) Egitura berritzea edo ordeztea: Egiturako elementu berria, banakakoa edo orokorra, egitea edo jartzea, lehengoa, oso hondatuta dagoena edo ahalmen mekaniko urriegia daukana, konponezina delako.

j) Erabateko birgaitzea: honako kasu hauetan gertatzen da:

1. Ondasun higiezin batean modu orokorrean esku hartzen denean bertako erabilera unitateetako bizigarritasuna lehengoratzeko.

2. Ondasun higiezinako elementuen heren baten baino gehiagoren egitura ukitzen denean.

3. Aurrekontuaren zenbatekoa birjarpen balioaren ehuneko 50 baino gehiago denean.

k) Hirigintza antolamendua: lurzoru bakoitzari bere xedea ezartzen dio eta erabilerak esleitzen dizkio hirigintza sailkapenaren eta kalifikazioaren bidez, lurralde antolamenduko tresnei buruz legez xedatutakoa eragotzi gabe.

l) Antolamendutik kanpo: indarreko hirigintzaplangintza baino lehenago egonda hark, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean aurreikusitako sistema orokor eta toki sistemetakoa jarduketak bakartu edo integratzen edo egikaritze jarduketaren batean sartuta geratzeagatik, epe jakin batean desagertzea aurreikusi duen eraikin, eraikuntza, instalakuntza eta erabilerak.



Halaber, antolamendutik kanpo daude Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean halakotzat jotzen direnak eta hirigintzako arau haustearen espedientearen ondoren berriaz antolamendutik kanpo uzten direnak.

Horietan ezin da egin sendotzeko obrarik, ez bolumena handitzeko obrarik, ez modernizatzeko obrarik, ez desjabetze balioa gehitzeko obrarik; aitzitik, ondasun higiezinaren higienarako, apainketarako eta artapenerako konponketa txikiak egin daitezke. Kasu berezietan, ordea, baimena eman ahal izango da sendotzeko obra partziala edo egoeraren araberakoa egiteko, baldin eta ez badago aurreikusita hamabost urteko aldian (obra egin nahi den egunetik aurrera) finka desjabetzea edo eraistea; hori dena, indarreko legedian aurreikusitakoarekin bat.

3. artikulua. Ondorioak

1. Obra jakin batzuk egiteko obra lizentzia eskuratu beharra kendu da eta horren ordean aldez aurreko komunikazioa eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dira; hauexek dira obrak: hirigintzan edo ingurumenean eragin txikia edukitzeagatik eta teknikoki munta txikikoa izateagatik proiektu teknikoa aurkeztu beharrik ez duten obrak. Honelako kasuetan nahikoa izango obra amaitu ondoren kontrolatzea aplikatu beharreko araudiarekin bat datorren egiaztatzeko.

2. Aldez aurreko komunikazioek eta erantzukizunpeko adierazpenek bidezko legerian ezarritako ondorioak sortuko dituzte, eta aurkezten diren egunetik obra gaitzen dute obra gauzatzen hasteko. Horrek ez ditu eragotziko udalak lanak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko dauzkan ahalmenak.

3. Aldez aurreko komunikazio bati edo erantzukizunpeko adierazpen bati erantsi edo atxikitako datu, adierazpen edo agiriren bat zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo Udalarari aldez aurreko komunikazioa aurkezten ez bazaio, horren berri jakiten denetik aurrera ezin jarraitu izango da obrarekin, eta baliteke erantzukizun penala, zibila edo administratiboa egotea.

4. Halaber, udalak gertatutakoa adierazteko ematen duen ebazpenean ondoko hauek ezarri ahal izango ditu aplikatu beharreko sektore arauetan ezarritakoarekin bat etorritik: batetik, interesdunak egoera juridikoa eskubidea onartu edo erabili edo obra hasi aurrekora leheneratu behar duela: bestetik, aldi batean ezin izango duela eskatu beste prozedurarik xede bererako.

5. Ez aldez aurreko komunikazioa ez erantzukizunpeko adierazpena behar ez duen esku hartzea egiteko hirigintzakolizentzia eskatu eta lortu behar da, eta horrez gainera proiektua ere aurkeztu behar da, hain zuzen ere azaroaren 5eko 38/1999 Legeak, eraikuntzaren antolamenduarenak, ezarritakoaren arabera prestatutako proiektua.

6. Jarduketa hauen araubideak ez ditu salbuesten titularrak aplikatu beharreko indarreko araudian ezarritako betebeharrak fiskal, administratibo eta zibiletatik.

4. artikulua. Betearaztea eta aldaketak egitea

1. Aldez aurreko komunikazioan edo erantzukizunpeko adierazpenean azaldutako obra txikia baino ezin izango da egin. Obra egiten ari dela aldaketarik sartu nahi izanez gero, Udalarari beste komunikazio bat bidali beharko zaio horren berri emateko.

2. Etxebizitzak edo lokalak egokitzeko obra txikiak eta zoruen, sabaien eta paramentuen akaberak konpontzeko edo berritzeko obra txikiak ezin dute aldatu barruko esparruen banaketa, ez eta egiturako elementuak ere.



3. Obra txikiak komunikazioaren edo adierazpenaren egunetik sei hilabete pasatu baino lehen amaitu behar dira. Aldi horretan amaitu ezean, iraungitza jo ahal izango dira, interesdunari entzunaldia eman ondoren, ondoko kasuan izan ezik: interesdunak obra amaitzeko luzapena edo atzerapena eskatu eta epealdiaren zenbaketa eteten bada.

4. Lanak egitean obren ondorioz jabari publikoan eta inguruko gainerako esparruetan egiten diren kalteak konpondu behar dira; horiek guztiak seguru, osasungarri eta garbi mantendu behar dira.

5. Kaleetan, plazetan eta pasealekuetan debekatuta daude hauek jartzea: aldamiok, eskailerak, makinak, tresnak, edukiontziak, lanabesak, eta jendearen joan-etorriak oztopatzen dituzten eraikuntzako denetariko objektuak eta materialak, berariazko baimenik eduki ezean.

5. artikulua. Baldintzak

1. Obra egitea alde aurreko komunikazioaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren araubidearen baldintzapean egoteak ondorioak sortuko ditu udalaren eta jarduketa egin nahi duen pertsonaren artean, baina ez ditu aldatuko pertsona horren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

2. Aldez aurreko komunikazioaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren araubidean obra bat egiteko legitimazioa eskuratzeak ez du ukituko jabetza eskubidea, eta ezin die kalterik egin hirugarrenei.

3. Titularrak udal zerbitzuen eskura eduki behar du eginbideko alde aurreko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena, eta zerbitzu horietako langileei obra lekuan sartzenutzi behar die, ikuskapenak eta egiaztapenak egin ditzaten araudi aplikagarria betetzen denez argitzeko.

4. Obra egitean eraikuntzari, azpiegiturei eta laneko segurtasunari eta osasunari buruzko indarreko xedapenak bete behar dira.

5. Obren dimentsioak eta ezaugarriak ezin dira izan komunikazioan edo adierazpenean azaltzen direnak baino handiagoak. Horiek gainditzeahirigintzako arau haustea izango da.

6. Aldez aurreko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena ezin da erabili titularrari baimendutako jarduketak egitean ezartzen zaion erantzukizun zibila edo penala saihesteko edo murrizteko.

Bigarren sekzioa

Aldez aurreko komunikazioak

6. artikulua. Aldez aurreko komunikazioaren aplikazio eremua

1. Aldez aurreko komunikazioa behar da hiri lurzoruan teknikoki erraza eta eraikuntza eta ekonomia aldetik garrantzi txikikoa den obra txikia egiteko, proiektu teknikorik eta obra zuzendaritza behar ez badu. Gehienetan herri biderik ukitzen ez duen konponketa, apainketa, apaindu edo itxiturako obra txikia izaten da.

2. Obrak ezin ditu inolaz ere aldatu eraikitako bolumena edo azalera eta baimendutako erabilera; ezin dira beste era batera antolatu higiezinaren egiturako elementuak, elementu arkitektonikoak eta elementu komunak, ez banatu, ez aldatu. Halaber, ezin da aldatu etxebizitzaren eta lokalen kopurua, ez egitura (zutabeak, habeak, estalkiak,



etab.) ez kanpoko diseinua ez eraikin edo instalazioaren bizigarritasuna edo segurtasuna ukitu. Aitzitik, garrantzi txikiko obra izan behar da, barrukoa zein kanpokoa: luzitzea, zorua zolatzea, barrualdea entokatzea, zabaltzako lanak, arotzeriaaldatzea (kanpoan eta barruan), fatxada akaberak edo urbanizazioko elementu bakanak jartzea (zoladura berritzea, etab.), eta antzeko lanak.

3. Zehazki, ondoko hauek dira obra txikiak (baimena eskuratzeko lehenago lizentzia lortu behar zen eta oraindik aurrera aldez aurreko komunikazioa):

a) Kontserbazio eta mantentze obra txikiak:

- Terrazak edo barruko patioak (zoladurak eta iragazgaiztea...), atariak, eskailerak, garajeko atearak... kontserbatzeko eta mantentzeko konponketa eta berrikuntza lanak.

- Eraikinaren atariak eta komunikazio guneak kontserbatzeko eta mantentzeko konponketa edo berrikuntza obrak: zoladurak, sabaiak, hormak, eskaiolak, xaflatuak, barneko arotzeria eta gainerako estaldurak.

- Eraikinetako instalazio elektrikoak, hodiak, berokuntza, gasa, saneamendua eta beste batzuk kontserbatzeko eta mantentzeko konponketa edo berrikuntza lanak.

- Elektrizitatearen, saneamenduaren, horniduraren, gasaren eta gainerakoen sare pribatuak kontserbatzeko eta mantentzeko konponketa eta berrikuntza lanak (ihesak, hausturak, etab.).

- Aurrean azaldutakoen antzekokontserbatu eta mantentzeko konponketa eta berrikuntza lanak.

b) Etxebizitzakegokitzeko obra txikiak: egitura ukitzen ez duten erreforma partzialak, hain zuzen ere garrantzi txikiko konponketa, berrikuntza, aldaketa edo ordezte lanak, hala nola:

- Egitura ukitzen ez duten barruko erreformak: zoladurak, sabaiak, hormak, eskaiolak, xaflatuak eta abarrekoak konpontzea, berritzea, aldatzea edo ordeztea.

- Barruko instalazioak eraberritzea: hodiak, elektrizitatea, berokuntza, saneamendua etab.

- Barruko erreformak: pintatzea, iztukua ematea eta gainerako estaldurak.

- Barruko arotzeriaeraberritzeko lanak.

c) Lokalak egokitzeko obra txikiak: egitura ukitzen ez duten erreforma partzialak, hain zuzen ere garrantzi txikiko konponketa, berrikuntza, aldaketa edo ordezte lanak, hala nola:

- Egitura ukitzen ez duten barruko erreformak: zoladurak, sabaiak, hormak, eskaiolak, xaflatuak, barruko arotzeria etab. konpontzea, berritzea, aldatzea edo ordeztea, barruko banaketa aldatu gabe.

- Hoditeriaren, elektrizitatearen, berokuntzaren eta saneamenduaren instalazioak eta beste batzuketaberritzeko lanak, hodi nagusiak ukitzen ez dituztenak eta ez dakartenak ez erabilera aldaketarik, ez suteen aurkako segurtasuna murrizterik, indarreko araudia betetzeari dagokionez (eraikuntzako elementuen egonkortasuna eta suaren aurkako erresistentzia, sua detektatzeko, alarma jotzeko eta itzaltzeko instalazioak, larrialdietarako argiak, etab.).

- Barruko erreformak: pintatzea, iztukua ematea eta gainerako estaldurak.



- Obra txikiak lokalen kanpoaldean, fatxadako elementu komunak (eguzki olanak, pintura, arotzeria, pertsianak eta antzekoak) aldatzea ez dakartenak.

d) Kanpoaldeko obrak, egiturazko elementurik ukitzen ez dutenak eta fatxadaren aldaketa orokorra xede ez dutenak:

- Konponketa partzialak eraikinaren kanpoko paramentuetan (fatxadak, balkoiak, irteten diren elementuak, etab.) eta eraikinaren azpiegituretako beste elementu batzuetan. Honelakoetan eraikinaren fatxadaren homogeneotasuna bermatu behar da.

- Eraikinaren barrualdean hodi eta azpiegitura txikiekin lan egitea (irradi-difusioa, telebista, oinarrizko telefonia eta kable bidezko beste zerbitzuzabatzuk.

- Kanpoaldeko atek eta leihoak aldatzea, lehengoan ezaugarri guztiak mantenduta; balkoiak ixtea, aldiz, inola ere ez. Fatxadakentokatzeta, iztukatzeta eta margotzeta.

e) Lurzatiko esparru libreak egokitzea: lorategiak egitea, zolatzea, zintarriak jartzea; jabari pribatuko esparru libreetan haiek erabili eta kontserbatzeko behar diren instalazioak. Salbuespena: lurzattia babestutako alde edo elementu batean egotea, baldin eta obrak inolako erabilerarik, zerbitzurik ez instalazio publikorik ukitzen ez badu.

f) Orubeak garbitzea eta mailakatzea, eta bertako sastrakak kentzea, aurreko idatz zatiko muga berekin, baldin eta lurraren berezko maila aldatzen ez bada eta zuhaitzik mozten ez bada.

g) Espaloietan ibilgailuak pasatzeko baimendutako pasaguneak eta goraguneak konpontzea.

h) Aurreko idatz zatietan zehaztu gabeko obra txiki guztiak, baldin eta eraikinaren kanpoko arkitektura aldatzen ez bada, ez higiezinaren egitura, edo lokalak goitik behera eraberritzen ez badira.

4. Ondoko obrak egiteko ez da aurkeztu behar alde aurreko komunikazioa (beraz, obra lizentzia eskuratu behar da):

- Estalkietako obrak.

- Herri bideetako itxituretako obrak.

- Oinarrizko hirigintzako parametroak aldatzen dituzten obrak: eraikigarritasuna, altuera, bolumena, okupazioa eta erabilera.

- Antolamendutik kanpo dauden eraikinetako obrak eta antolamendu xehaturik ez duten aldeetako eraikinetakoak.

- Lurzoru urbanizaezineko obrak eta lurzoru urbanizaezinean dauden eraikin eta instalazioetakoak.

- Erantzukizunpeko adierazpena behar duten obrak.

Hirugarren sekzioa

Erantzukizunpeko adierazpena

7. artikulua. Erantzukizunpeko adierazpenaren aplikazio eremua



1. Ondoko kasuetan obra txikiaren sustatzaileakerantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du indarreko araudian obra egiteko ezarritako baldintzak betetzen dituela azaltzeko:

a) Aldamioak behar dituzten obra txikiak.

b) Baimena eskuratzeko lehenago sektoreko baimena lortu behar den obrak.

c) Oztopo arkitektonikoak ezabatzea eta egitura elementurik ukitzen ez duten laguntza teknikoak instalatzea (eskailerako igogailua jabari pribatuan eta obrak atarietan eta ezkaratzetan).

d) Jabari publikoko lurretan zundaketak eta prospekzioak eta eraikuntza obren aurreko lanak eta entseguak egitea, adituen zuzendaritzapean: eraikinaren egituraren portaera argitzeko entseguak egitea.

e) Lur pribatuetan zangak eta lakinak irekitzea zimenduak arakatzeko, adituen zuzendaritzapean eginda.

f) Espaloiak edo bide publikoak hesiekin edo denetariko instalazioekin okupatzea.

g) Eraikuntzako elementu lagungarriak eta osagarriak behar dituzten obrak.

h) Eraikinak edo lokalak gasez, argindarrez edo telekomunikazio zerbitzuezhornitzeko obrak, zanga ireki behar izanez gero, proiektu orokorra onartuta badago.

i) Goraguneak eraikitzeko obrak.

8. artikulua. Prozedura

1. Aldez aurreko komunikazioa eta erantzukizunpeko adierazpena eredu normalizatuan egin behar dira; ereduak ondo bete behar dira eta bakoitzarekin batera eskatzen diren agiri orokorrak eta kasuan kasuko agiri bereziak aurkeztu behar dira (eranskinetan zehazten dira).

2. Jarduketa ezagutzeko dokumentazio osoa erregistratzea Udalak jakinaren gainean egotearen parekoa izango da.

3. Dokumentazioa aztertuko da, eta egiaztatzen bada ez datorrela bat hirigintza antolamenduarekin eta ordenantza honetan xedatutakoarekin, Udalari jakinarazitako egintzaren izapideak ondoko jarduketetako bat ekarriko du:

a) Behar diren agiri guztiak ez badaude, Udalak errekerimendua bidaliko dio eskaera aurkeztu duenari falta dena aurkezteko hamar egun pasatu baino lehen.

b) Udalak uste badu aldez aurreko komunikazioaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren xede den jarduketaren izapideak ezin direla egin prozedura honen bidez edo jarduketa hiri antolamenduaren kontrakoa dela, komunikazioa edo adierazpena aurkeztu duenari jarduketa legitimatzeko eskatuko dio.

4. Komunikazioa jasotzeak aukera ematen dio Udalari obraren berri jakiteko eta ondoren kontrolak aplikatzeko.

5. Obra egiaztatzeko bisitarik eginez gero, akta egin behar da.

6. Udalak egiaztatzen badu obra ez dagoela ez aldez aurretiko komunikazioaren ez erantzukizunpeko adierazpenaren prozeduraren aplikazio eremuan, lizentziarik gabe



hasi dela ulertuko da, eta gerta liteke bertan behera uztea, bidezko erantzukizunak eskatzeaz gainera.

9. artikulua. Obraren baldintzak

1. Obra alde aurreko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezten den egunean has daiteke.

2. Datarik adierazi ezean, obra komunikazioa edo adierazpena aurkeztutako unetik hasiko dela ulertuko da. Komunikazioa edo adierazpena aurkezten denetik sei hilabete pasatutakoan espedientea ireki ahal izango da obra iraungitatzatjotzeko, interesdunak obra hasteko luzapena edo atzerapena eskatu ezean.

3. Obra hastearen erantzuleakpertsona titularrak eta komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena egin duten teknikariak baino ez dira izango.

4. Bide publikoak eta espaloiak okupatzekobaldintza hauek bete behar dira:

a) Babes hesiak gehienez okupa dezakeena espaloiaren edo bidearen zabalaren proportziozkoa izango da, nolana ere, inolaz ere ezin da heldu fatxadaren lerroa baino 3 metro aurrerago, ez espaloiaren edo bidearen bi heren baino gehiago hartu, eta espaloian edo bidean gutxienez 1,20 metroko espazio librea utzi behar du. Konponketa obretan baldintza horiek eurak ezar daitezke, udal zerbitzuen ustez beharrezkoa bada.

b) Espaloiaren edo bidearen zabalera ez bada nahikoa 1,20 metroko espazio librea uzteko, aparteko baimena eman daiteke hesia Udalaren zerbitzu teknikoek ezartzen dituen bermeekin instalatzeko. Horrelakoetan, eta Udalaren zerbitzu teknikoek egokitzen joz gero, hesia aldi batez bakarrik eduki ahal izango da: beheko solairuaren estalkia egin arte. Hori egindakoan estalitako pasabidea jarri beharko da.

c) Lanak egiten diren bitartean oinezkoak seguru ibiltzeko neurriak aplikatu behar dira; oinezkoentzako bidea librea eta segurua izan behar da eta larrialdietako ibilgailuentzako bidea egon behar da.

d) Lanen ordutegia zirkulazio beharrezanetara moldatu behar da, Udalaren zerbitzu teknikoak ematen dituen jarraibideak aintzat hartuta.

e) Ahal dela, materialak igotzeko aparatuak, siloak, langileen etxolak etab. eraikinaren edo orubearen barruan egon behar dira. Aparteko kasuetan, eta eraikinaren edo orubearen barruan jarri ezin badira, bide publikoan ipini ahal izango dira, babes hesiaren barrualdean, eta obraren zuzendari teknikoak azalpena eman behar du.

f) Plataforma igogailuak eta aldamio elektrikoak babes hesiaren barrualdean ipini behar dira.

g) Aurrean azaldutako okupazio baldintzakbetetzen direla frogatzen duten plano kotadunak aurkeztu behar dira, bai eta EBren segurtasun ziurtagiria, indarrean dagoen aseguru eta instalatzen diren aparatuen ezaugarri teknikoak ere.

h) Aldez aurretik Administrazio Batzordearen baimena izan behar da.

II. Titulua. Ikuskapen teknikoa eta obren kontrola

I. kapitulua

Xedea eta edukia



10. artikulua. Oinarriak, xedea eta edukia

Aldez aurreko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena behar duten obren ikuskapenak xedea hau dauka:

Obrak aldez aurreko komunikazioan adierazitako baldintzei jarraituz egiten direla egiaztatzea. Baldintza horiek, bestalde, Ordenantza honi lotu behar zaizkio.

11. artikulua. Udal kontrolaren eta ikuskapenaren araubidea

1. Udal zerbitzu teknikoek indarreko legediak eman dizkien ikuskaritza eginkizunak beteko dituzte hirigintza legedia betetzen dela egiaztatzeko, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 217. eta 218. artikuluek emandako eskumenen arabera.

2. Interesdunak Udalaren esku eduki behar du aldez aurreko komunikazioaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren kopia, behar diren eginbideak eginda, eta horrez gainera Udalaren zerbitzuei obran sartzenutzi behar die nahi dituzten ikuskapen eta egiaztapen lan guztiak egiteko.

3. Egiaztapenaren ondorioz ikusiko balitz faltsuak direla obrak egiteko gaitasuna eman zuen dokumentazioko datuak, obra oker burutzen ari dela, edo antzeko beste edozein inguruabar, udalak egoki iritzitako neurriak hartuko ditu hautemandako akatsen arabera, aplikatu beharreko hirigintza araudiarekin bat etorriz.

4. Udalak, nolana ere, erantzukizunpeko adierazpenaren araubidearen arabera hasitako obrak ikuskatuko ditu, honako kasu hauetan:

- Obrak jabari publikoa ukitzen badu.
- Obrak babestutako eraikina edo multzoaukitzen badu.
- Obra egiten den lurzorian kutsagarria izan daitekeen jardueraren bat egin edo egiten bada, Euskal Autonomia Erkidegoaren Inbentarioan ezarritakoarekin bat etorriz.

II. kapitulua

Zehapen araubidea

12. artikulua. Arau haustek eta zehapenak

Udalari aldez aurreko komunikazioaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren bidez jakinarazitako obra txikietan egiten diren arau hausteei eta haien kalifikazioei eta zehapenei hirigintzako indarreko legerian xedatutakoa aplikatuko zaie.

Azken xedapena

Ordenantza hau ALHAOn testu osoa argitaratzen denetik hamabost egun pasatutakoan jarriko indarrean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Xedapen gehigarria. Bakarra

Agirien ereduak:



Ordenantza honen 1. eranskinean alde z aurreko komunikazioaren eredu normalizatua ezartzen da eta 2. eranskinean erantzukizunpeko adierazpenarena.

Alkateari eskumena eman zaio ordenantza hau garatzeko behar diren agirien eredu normalizatu guztiak onetsi eta aldatzeko.

Xedapen iragankorra. Bakarra

Udal ordenantza hau indarrean jarri aurretik hasitako baimen prozedurak eskaera aurkeztean indarrean egon den araudiaren arabera izapidetu eta ebatziko dira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ebazpena eman aurretik interesdunak eskaeran atzera egin dezake eta ordenantza berria aplikatzea hauta dezake.

DILIGENTZIA.-

Udalbatzak, 2021eko apirilaren 27ko ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea alde z aurreko jakinarazpena eta erantzukizunpeko adierazpena behar dituzten obrak arautzen dituen udal ordenantzari eta jendaurrean jarri zen 30 egunez Udalaren iragarki taulan zein Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (2021eko maiatzaren 7a, 49 zk.).

O.E.
Alkatea



Behin-behineko idazkaria

DILIGENTZIA.-

Alde z aurreko jakinarazpena eta erantzukizunpeko adierazpena behar dituzten obrak arautzen dituen udal ordenantza behin betiko onartu zen, ez baitzen erreklamaziorik aurkeztu jendaurrean jarritako epean, eta osorik argitaratu zen Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (2021ko uztailaren 9ko, 76 zk.).

O.E.
Alkatea



Behin-behineko idazkaria



ANEXO I

**OBRA TXIKIEN AURRETIAZKO JAKINARAZPENA
COMUNICACIÓN PREVIA DE OBRAS MENORES**

ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA PERSONA O ENTIDAD QUE PRESENTA LA SOLICITUD		
Izena eta bi abizenak / Nombre y dos apellidos	NAN / DNI	
Noren ordezkartzan / En representación de	IFK / NIF – NAN / DNI	
Ondorengoa naizen aldetik / En calidad de		
JAKINARAZPENETARAKO DATUAK /DATOS PARA ENVIO DE NOTIFICACIONES		
Eskatzailea / Solicitante <input type="checkbox"/>	Ordezkarria / Representante <input type="checkbox"/>	
Kalea / Calle	Zk. / N ^o Solairua / Piso	Aldea / Mano
Posta-kodea / Código Postal	Herria / Localidad	Lurralde / Provincia
e-posta / e-mail	Telefono zk. / N ^o teléfono	Sakelakoaren zk. / N ^o móvil
OBRAREN KOKALEKUA /EMPLAZAMIENTO DE LA OBRA		
Kalea / Calle	Zk. / N ^o Solairua / Piso	Aldea /Mano
Posta-kodea / Código Postal	Herria/ Localidad	
OBREN DESKRIPZIOA /DESCRIPCIÓN DE LAS OBRAS		
Obrak amaitzeko kalkulaturako eguna / Fecha prevista para finalización de las obras		
ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA /DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA		
UDAL DATU-BASEAN SARTZEKO BAIMENA/ AUTORIZACIÓN INSERCIÓN BASE DE DATOS DEL AYUNTAMIENTO		
<input type="checkbox"/> Baimena ematen dut nere datuak Udaleko datu-basean sar daitezzen, udal informaziorako soilik./Autorizo que mis datos formen parte de la base de datos del Ayuntamiento únicamente para efectos informativos municipales.		



Pertsona aitortzen du AITORPEN ARDURATSU gisa sinatzen du dokumentu hau. Bere ardurapean adierazten du indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak guztiak betetzen dituela, hori egiaztatzen duen dokumentazio guztia duela eta hitzemandako duela betebeharrak beteko dituela obra indarrean dagoen garaian. Halaber, hitzemandako duela horretan emandako datu eta dokumentuetan eginiko edozein aldaketaren berri emango duela.

Aitorpen arduratsu hau aurkezteak dokumentu erabilgarriak, fiskalak edo bestelakoak edukitzea dakar, eta beste horrenbeste bestelako administrazioek edo organismo publikoek eska ditzaketan baimen eta oniritziak dagokienez, kasu bakoitzean ezar daitezkeen araudiaren arabera nahitaezkoak badira.

Halaber, berriaz aitortzen dut badakidala Aitorpen Arduratsu honekin batera aurkeztutako edozein datu, adierazpen edo dokumentutan zehaztasun falta, faltasak edo hutsuneak egoteak, eta horiek funtsezkoak izateak, Udalak obraren exekuzioa aurrera jarraitzea ezarriko duela, 71. artikuluan xedatutakoaren arabera eska daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboetan eragin gabe.

Eraikuntza eta eraispene onorioz sortutako hondakin kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak dioenaren arabera, behin lanak bukatu ondoren, honakoa aurkeztu beharko da: obrari dagozkion emate-agiri edo ziurtagiriak, Eraikuntza eta Eraispene hondakinak tratatzeko instalazioarenak.

ESKABIDE HAU ONDOKO HELBIDE HONETAN AURKEZ DAITEKE:

Aurrez aurre: udaletxean
Samuel Picaza Plaza, 1, 01110, Kanpezu
Ordutegi asteleheneratik ostiralera 09:00etatik 14:00etara
Postaz:
Posta ziurtatu irekiaren bitartez posta bulegoetan
Faxez: 945405444
Helbide elektronikoa: erregistroa@kanpezu.eus
Informazio gehiagorako deitu: 945405443

Datuen babesa

Ohar honen bidez jakinarazten dizuegu zerorrek eman dituzun datuak KANPEZUKO UDALAREN titularitate eta erantzukizuneko fitxategi batean sartu direla. Datu pertsonalak babestearren gaineko eta eskubide digitalen bermerako abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoa eta Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko euskal bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea betetze aldera.

Udal kudeaketak bere eskumenen alorrean dituen zereginak ahalbidetzea da fitxategi horren xedea eta baita Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak egoki ematea ere, ondoren historia, estatistika edo zientzia xedeetarako erabiliko direnaren kalterik gabe; beti ere, ezartzeko den legea betetze aldera.

Herri administrazioen eskura dauden xedapen ezargarrietan jarritako legeko epeetan gordeko dira zure datuak, horien tratamendutik sor daitezkeen ahalzko erantzukizunak kontuan hartzeko, beti ere, datuak sekretupean eta gordeta izateko betebeharrak betetzeko.

Nahi izanez gero, datuak ikusi, zuzendu, baliogabetu eta horien aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango duzu, indarreko legegintzak ezarritakoaren arabera, KANPEZUKO UDALAKO Idazkaritza Orokorraren Zerbitzura zuzenduta, bera egoitza helbide honetan duela: Samuel Picaza Plaza, 1, 01110, Kanpezu

La persona declarante suscribe el presente documento con carácter de DECLARACIÓN RESPONSABLE manifestando bajo su responsabilidad que cumple con todos los requisitos establecidos en la normativa vigente, que dispone de toda la documentación que así lo acredita, y que se compromete a mantener su cumplimiento durante la vigencia de la obra, así como a comunicar cualquier variación de los datos y documentos aportados en este momento.

La presentación de esta Declaración Responsable implica la posesión de los documentos de disposición de uso, fiscales o de cualquier otra índole, así como las autorizaciones y permisos exigibles por otras Administraciones u Organismos Públicos, que sean preceptivos de acuerdo con la normativa en cada caso aplicable.

Asimismo, declaro expresamente conocer que la inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, en cualquier dato, manifestación o documento que acompañe o incorpore a la presente Declaración Responsable, determinará que el Ayuntamiento resuelva sobre la imposibilidad de continuar con el ejercicio de la obra, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar, de conformidad con lo dispuesto en el art. 71.bis de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

De acuerdo con lo previsto en el Decreto 112/2012, de 26 de junio, que regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, una vez finalizadas las obras deberá entregar los correspondientes albaranes o documentos acreditativos de la Planta de Tratamiento de Residuos de Construcción y Demolición correspondientes a la obra.

ESTA SOLICITUD SE PUEDE ENTREGAR EN:

Presencialmente: en el Ayuntamiento
Plaza Samuel Picaza, 1, 01110, Campezo
Horario de lunes a viernes de 9:00 a 14:00.
Por correo postal:
En las oficinas de correos mediante correo ordinario.
Por fax: 945405444
E-mail: erregistroa@kanpezu.eus
Para más información llamar al 945405443

Protección de datos

En cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y garantía de los derechos digitales y la Ley 2/2004, de 25 de Febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, se advierte que los datos personales que Vd. nos proporciona se incluirán en un fichero cuyo titular y responsable es el AYUNTAMIENTO DE CAMPEZO.

La finalidad del fichero es la realización de tareas propias de la gestión municipal en el ámbito de sus competencias y la adecuada prestación de los servicios que ofrece el Ayuntamiento, sin perjuicio de su posible tratamiento posterior para fines históricos, estadísticos o científicos, de acuerdo a la legislación aplicable.

Sus datos serán conservados durante los plazos legalmente previstos en las disposiciones aplicables a disposición de las Administraciones Públicas, para la atención de las posibles responsabilidades nacidas del tratamiento y siempre bajo el deber de secreto y reserva.

Si lo desea, Vd. podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, oposición y/o cancelación de los datos, según lo establecido en la legislación vigente, dirigiéndose al Servicio Secretaría General del AYUNTAMIENTO DE ACAMPEZO, en Plaza Samuel Picaza, 1, 01110 Campezo.



**OBRA TXIKIEN
AURRETIAZKO
KOMUNIKAZIOAREKIN
BATERA AURKEZTU
BEHARREKO
DOKUMENTUAK:**

- a) Ordezkaritza-egiaztagiria, hala badagokio. Izan partikular gisa, lege-izaeraz edo profesional gisa.
- b) Berriazko dokumentazio teknikoa:
- b.1. Kontserbazio eta mantenimendu-lanak:
- Lanen aurrekontua, materiala eta eskulana kontatuta.- Argazkia (lanak kanpoaldean egin behar badira).
- b.2. Egokitzapen txikien lanak, etxebizitza eta lokaletan:
- Lanen aurrekontua, materiala eta eskulana kontatuta.
 - Krokisa/planoa, lanak non egingo diren zehaztuta.
 - Argazkia koloretan. Gaur egungo egoera, lanak kanpoaldean egin behar badira.
- b.3. Eraikinen kanpoaldeko paramentua eta eremu komunak:
- Lanen aurrekontua, materiala eta eskulana kontatuta.
 - Fatxadaren argazkia, koloretan.
 - Jabeen komunitatearen baimena, etxebizitza kolektiboa bada.
 - Oinarrizko segurtasun- eta osasun-azterketa, alturan lan egiteagatik arriskua egon daitekeen lanetan.
 - Kanpoaldeko itxitura (bide publikoetan salbu): itxituraren eremua markatuta dagoen plano, indarrean dagoen Hirigintza Araudian jasotzen diren neurriak

**DOCUMENTACIÓN A
ACOMPañAR CON LA
COMUNICACIÓN PREVIA DE
OBRAS MENORES:**

- a) Acreditación de representación, en su caso, tanto a título particular, legal o profesional.
- b) Documentación técnica específica:
- b.1. Obras de conservación y mantenimiento:
- Presupuesto de obras incluyendo materiales y mano de obra.- Fotografía (en caso de exteriores).
- b.2. Obras de acondicionamiento menor en viviendas y locales:
- Presupuesto de obras incluyendo materiales y mano de obra.
 - Croquis/plano indicando dónde se van a realizar las obras.
 - Fotografía en color, estado actual en caso de actuación en el exterior.
- b.3. Edificios paramento exterior y zonas comunes:
- Presupuesto incluyendo materiales y mano de obra.
 - Fotografía, en color, de la fachada.
 - Autorización de la comunidad de propietarios, en caso de viviendas colectivas.
 - Estudio Básico de Seguridad y Salud, en aquellas obras en las que exista riesgo por trabajo en altura.
 - Cerramiento exterior (excepto al vial público): Plano en el que se marque la ubicación del cerramiento, acotando medidas según la Normativa Urbanística vigente y presentando cuantas autorizaciones sean necesarias (Carreteras, ADIF, URA..).



hartuta eta beharrezko baimen guztiak aurkeztuta (Errepideak, ADIF, URA...).

b.4. Lursailean eremu librea uzteko egokitzapena, garbiketak eta sasia kentzea, lurzorua berdintzea, espaloietan baimendutako igarobideak konpontzea, edo aurreko ataletan zehaztu gabeko eta izaera txikiko beste edozein lan, beti ere ez badu ekartzen eraikinaren kanpoaldeetan aldaketa arkitektonikorik, etxeen egituretan aldaketarik edo lokalen eraldaketa integralik:

- Lanen aurrekontua, materiala eta eskulana kontatuta.- Gaur egungo egoeraren argazkia, koloretan.

b.4. Acondicionamiento de espacios libres de parcela, limpiezas y desbroces, nivelación de solares, reparación de pasos y badenes autorizados en aceras o cualesquiera otras de pequeña entidad no especificadas en los apartados anteriores, siempre que no supongan modificaciones arquitectónicas exteriores del edificio, modificaciones estructurales de los inmuebles o reforma integral de los locales:

- Presupuesto incluyendo materiales y mano de obra.- Fotografía, en color, del estado actual.



ANEXO II

**BIDE PUBLIKOA HARTZEN DUTEN OBRAK (OBRA TXIKIAK)
EGITEKO ERANTZUKIZUNEN ADIERAZPENA/
DECLARACIÓN RESPONSABLE PARA LA EJECUCIÓN DE OBRAS MENORES**

ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA PERSONA O ENTIDAD QUE PRESENTA LA SOLICITUD		
Izena eta bi abizenak / Nombre y dos apellidos	NAN / DNI	
Noren ordezkartizan / En representación de	IFK / NIF – NAN / DNI	
Ondorengoa naizen aldetik / En calidad de		
JAKINARAZPENETARAKO DATUAK / DATOS PARA ENVIO DE NOTIFICACIONES		
Eskatzailea / Solicitante <input type="checkbox"/>	Ordezkaria / Representante <input type="checkbox"/>	
Kalea / Calle	Zk. / N ^o Solairua / Piso	Aldea / Mano
Posta-kodea / Código Postal	Herria / Localidad	Lurralde / Provincia
e-posta / e-mail	Telefono zk. / N ^o teléfono	Sakelakoaren zk. / N ^o móvil
OBRAREN KOKALEKUA / EMPLAZAMIENTO DE LA OBRA		
Kalea / Calle	Zk. / N ^o Solairua / Piso	Aldea / Mano
Posta-kodea / Código Postal	Herria / Localidad	
OBREN DESKRIPZIOA / DESCRIPCIÓN DE LAS OBRAS		
Obrak amaitzeko kalkulaturako eguna / Fecha prevista para finalización de las obras		
ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA		
UDAL DATU-BASEAN SARTZEKO BAIMENA/ AUTORIZACIÓN INSERCIÓN BASE DE DATOS DEL AYUNTAMIENTO		
<input type="checkbox"/> Baimena ematen dut nere datuak Udaleko datu-basean sar daitezen, udal informaziorako soilik./Autorizo que mis datos formen parte de la base de datos del Ayuntamiento únicamente para efectos informativos municipales		



Pertsona aitorleak AITORPEN ARDURATSU gisa sinatzen du dokumentu hau. Bere ardurapean adierazten du indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak guztiak betetzen dituela, hori egiaztatzen duen dokumentazio guztia duela eta hitzemandako betebeharrak beteko dituela obra indarrean dagoen garaian. Halaber, hitzemandako unen horretan emandako datu eta dokumentuetan eginiko edozein aldaketaren berri emango duela.

Aitorpen arduratsu hau aurkezteak dokumentu erabilgarriak, fiskalak edo bestelakoak edukitzea dakar, eta beste horrenbeste bestelako administrazioek edo organismo publikoek eska ditzaketan baimen eta oniritziari dagokienez, kasu bakoitzean ezar daitezkeen araudiaren arabera nahitaezkoak badira.

Halaber, berariaz aitortzen dut badakidala Aitorpen Arduratsu honekin batera aurkeztutako edozein datu, adierazpen edo dokumentutan zehaztasun falta, faltasutasa edo hutsuneak egoteak, eta horiek funtsezkoak izateak, Udalak obraren exekuzioa aurrera jarraitzea ezar dezakeela, 71. artikuluan xedatutakoaren arabera eska daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboetan eragin gabe.

Eraikuntza eta eraispene onorioz sortutako hondakin kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak dioenaren arabera, behin lanak bukatu ondoren, honakoa aurkeztu beharko da: obrari dagozkion emate-agiri edo ziurtagiriak, Eraikuntza eta Eraispene hondakinak tratatzeko instalazioarenak.

ESKABIDE HAU ONDOKO HELBIDE HONETAN AURKEZ DAITEKE:

Aurrez aurre: udaletxean
Samuel Picaza Plaza, 1, 01110, Kanpezu
Orduetegi asteleheneetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara
Postaz:
Posta ziurtagiri irekiaren bitartez posta bulegoetan
Faxez: 945405444
Helbide elektronikoa: erregistroa@kanpezu.eus
Informazio gehiagorako deitu: 945405443

Datuen babesa

Ohar honen bidez jakinarazten dizuegu zerorrek eman dituzun datuak KANPEZUKO UDALAREN titularitate eta erantzukizuneko fitxategi batean sartu direla. Datu pertsonalak babestearren gaineko eta eskubide digitalen bermerako abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoa eta Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko euskal bulego sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea betetze aldera.

Udal kudeaketak bere eskumenen alorrean dituen zereginak ahalbidetzea da fitxategi horren xedea eta baita Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak egoki ematea ere, ondoren historia, estatistika edo zientzia xedetarako erabiliko direnaren kalterik gabe; beti ere, ezartzekoa den legegintza betez.

Herri administrazioen eskura dauden xedapen ezgarrietan jarritako legezko epeetan gordeko dira zure datuak, horien tratamendutik sor daitezkeen ahalzko erantzukizunak kontuan hartzeko, beti ere, datuok sekretupean eta gordeta izateko betebeharrak betez.

Nahi izanez gero, datuak ikusi, zuzendu, baliogabetu eta horien aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango duzu, indarreko legegintzak ezarritakoaren arabera, KANPEZUKO UDALAKO Idazkaritza Orokorraren Zerbitzura zuzenduta, bera egoitza helbide honetan duela: Samuel Picaza Plaza, 1, 01110, Kanpezu

La persona declarante suscribe el presente documento con carácter de DECLARACIÓN RESPONSABLE manifestando bajo su responsabilidad que cumple con todos los requisitos establecidos en la normativa vigente, que dispone de toda la documentación que así lo acredita, y que se compromete a mantener su cumplimiento durante la vigencia de la obra, así como a comunicar cualquier variación de los datos y documentos aportados en este momento.

La presentación de esta Declaración Responsable implica la posesión de los documentos de disposición de uso, fiscales o de cualquier otra índole, así como las autorizaciones y permisos exigibles por otras Administraciones u Organismos Públicos, que sean preceptivos de acuerdo con la normativa en cada caso aplicable.

Asimismo, declaro expresamente conocer que la inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, en cualquier dato, manifestación o documento que acompañe o incorpore a la presente Declaración Responsable, determinará que el Ayuntamiento resuelva sobre la imposibilidad de continuar con el ejercicio de la obra, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar, de conformidad con lo dispuesto en el art. 71.bis de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

De acuerdo con lo previsto en el Decreto 112/2012, de 26 de junio, que regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, una vez finalizadas las obras deberá entregar los correspondientes albaranes o documentos acreditativos de la Planta de Tratamiento de Residuos de Construcción y Demolición correspondientes a la obra.

ESTA SOLICITUD SE PUEDE ENTREGAR EN:

Presencialmente: en el Ayuntamiento
Plaza Samuel Picaza, 1, 01110, Campezu
Horario de lunes a viernes de 9:00 a 14:00.
Por correo postal:
En las oficinas de correos mediante correo ordinario.
Por fax: 945405444
E-mail: erregistroa@kanpezu.eus
Para más información llamar al 945405443

Protección de datos

En cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y garantía de los derechos digitales y la Ley 2/2004, de 25 de Febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, se advierte que los datos personales que Vd. nos proporciona se incluirán en un fichero cuyo titular y responsable es el AYUNTAMIENTO DE CAMPEZO.

La finalidad del fichero es la realización de tareas propias de la gestión municipal en el ámbito de sus competencias y la adecuada prestación de los servicios que ofrece el Ayuntamiento, sin perjuicio de su posible tratamiento posterior para fines históricos, estadísticos o científicos, de acuerdo a la legislación aplicable.

Sus datos serán conservados durante los plazos legalmente previstos en las disposiciones aplicables a disposición de las Administraciones Públicas, para la atención de las posibles responsabilidades nacidas del tratamiento y siempre bajo el deber de secreto y reserva.

Si lo desea, Vd. podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, oposición y/o cancelación de los datos, según lo establecido en la legislación vigente, dirigiéndose al Servicio Secretaría General del AYUNTAMIENTO DE ACAMPEZO, en Plaza Samuel Picaza, 1, 01110 Campezu.

Data/Fecha

Sinadura/Firma



**OBRA TXIKIETAN
ERANTZUKIZUNPEKO
AITORPENARI GEHITZEKO
DOKUMENTAZIOA:**

- a) Ordezkaritza-egiaztagiria, hala badagokio. Izan partikular gisa, lege-izaeraz edo profesional gisa.
- b) Sektorekako baimenak, nahitaezkoak baldin badira (Errepideak, URA, ADIF...)
- c) Dagokion Administrazio Batzarraren baimena, bide publikoa okupatuz gero.
- d) Berariazko dokumentazioa:
 - d.1.- Egitura kaltetu gabe edo aurrez izandako suteen aurkako segurtasun-baldintzak gutxitu gabe arkitektura-oztopoak kentzeko helburua duten lanak: ordenantza betetzen dela ziurtatzen duten agiri teknikoak eta gaur egungo egoeraren eta berritutako egoeraren planoak.
 - d.2.- Zundaketa eta laginketak: zuzendaritza teknikoa (zundaketetan).
 - d.3.- Eraikuntzarako elementu osagarriak:
 - Plano edo krokis zehaztua, honakoak jasotzen dituena: lanak egingo diren lekua, eta baliabide osagarrien kokalekua, behar bezala babes-itxituraren barruan, ordenantza honetako 7. Artikuluaren 6, 7 eta 8 puntuetan helburu horrekin ezarritako dimentsio-baldintzak betez.
 - Indarrean dagoen Erantzukizun Zibileko Aseguruaren egiaztagiria.
 - Lanen zuzendari teknikoaren justifikazioa domeinu publikoa

**DOCUMENTACIÓN A
APORTAR A LA
DECLARACIÓN
RESPONSABLE DE OBRAS
MENORES:**

- a) Acreditación de representación, en su caso, tanto a título particular, legal o profesional.
- b) Autorizaciones sectoriales, en caso de resultar preceptivas (carreteras, URA, ADIF...) Autorización de la Junta Administrativa correspondiente en caso de ocupación de vía pública.
- c) Documentación específica:
 - d.1- Obras que pretendan la supresión de barreras arquitectónicas sin que exista afección estructural ni se menoscaben las condiciones de seguridad contra incendios preexistentes: Justificantes técnicos del cumplimiento de la ordenanza y planos de situación actual y reformada
 - d.2- Sondeos y catas: Dirección técnica (en sondeos).
 - d.3- Elementos auxiliares de la construcción:
 - Plano o croquis acotado que comprenda: Situación de la obra y emplazamiento de los medios auxiliares convenientemente ubicados dentro de la valla de protección, cumpliendo las condiciones dimensionales establecidas para la misma en el punto 6, 7 y 8 del art. 7 de la presente ordenanza.
 - Acreditación del Seguro de Responsabilidad Civil vigente.
 - Justificación de la necesidad de ocupación dominio público por el técnico director de obra, en el



okupatzeko, eraikuntzarako
baliabide osagarrien kasuan.
d.4.- Bide publikoa okupatzea
dakarten lanak. Nahitaezkoa
izango da dagokion Administrazio
Batzarraren baimena ekartzea.
Horretaz gain:

d.4.1.- Itxitura dagoen kasuetan:

- Plano edo krokisa, honakoak
jasota: lanak egingo diren lekua,
espaloia okupazioa (okupatu
beharreko espalo(ar) en metro
lineal kopurua, eta hesiaren
zabalera) eta oinezkoentzat libre
uzten den pasabidea, ordenantza
honetako 9. Artikuluko 4
puntuan horretarako zehaztutako
dimentsio-baldintzak betez.

d.4.2.- Aldamioak jarri behar
badira:

Aldamioen ziurtagiria, eskuduntza
duen teknikariak sinatua,
gutxienez ondorengoak jasotzen
dituena:

- Plano edo krokisa, honakoak
jasota: lanak egingo diren lekua,
espaloia okupazioa (okupatu
beharreko espalo(ar) en metro
lineal kopurua, eta aldamioaren
zabalera) eta oinezkoentzat libre
uzten den pasabidea, ordenantza
honetako 9. Artikuluko 4
puntuan horretarako zehaztutako
dimentsio-baldintzak betez.

- Oinarrizko Osasun- eta
Segurtasun-azterketaren ale bat
(eskuduntza duen teknikariak
idatzia).

- Jarduera honetarako indarrean
dagoen Erantzukizun Zibileko
Aseguruaren egiaztagiria,
instalazioa egingo duen
enpresarena.

caso de los elementos auxiliares y
complementarios de la
construcción.

d.4.- Obras que supongan ocupación
de vía pública. Siempre deberá
aportarse autorización de la Junta
Administrativa correspondiente y
además:

d.4.1. En caso de vallado:

- Plano o croquis que comprenda:
situación de la obra y ocupación de
acera (indicando metros lineales de
acera/s a ocupar y saliente o
anchura de la valla) y paso libre de
peatones, cumpliendo las
condiciones dimensionales
establecidas para la misma en el
punto 4 del art. 9 de la presente
ordenanza.

d.4.2. En caso de andamiaje:

Certificado de andamios firmado por
técnico

competente que comprenda al menos:

- Plano o croquis de la situación de
la obra, la ocupación de acera
(indicando metros lineales de
acera/s a ocupar y saliente o
anchura del andamio) y paso libre
de peatones, cumpliendo las
condiciones dimensionales
establecidas para la misma en el
punto 4 del art. 9 de la presente
ordenanza.

- Estudio Básico de Seguridad y
Salud, un ejemplar (redactado por
técnico competente).

- Acreditación de Seguro de
Responsabilidad Civil vigente para
esta actividad, por la empresa
instaladora.